



## DEIALDIA

Udal-plenoak 2019ko maiatzaren 21an eta arratsaldeko 19:00tan Udaletxeko Areto Nagusian ohiko biltzarra burutu behar duelarik, honen bidez deitzen zaizu, bertara aipatu egun eta orduan etor zaitezen, non atzealdean zehazten den eguneko aztergaietan azaltzen diren gaiak aztertuko diren.

Etortzerik ez bazenu, Alkatetza honi jakinaraziko diezaiozun itxaro dut zure adeitasunarengandik, hala jasota gera dadin.

Oiartzun, 2019ko maiatzaren 16a.

ALKATEAK,





**2019ko maiatzaren 21an, 19:00tan** egingo den

UDAL OSOKO

OHIKO BATZARRALDIKO

GAI ZERRENDA

1. Aurreko batzarrei dagozkien akten onarpena.
2. Kontu Orokorraren onarpena
3. Hiri Hondakinak kudeatzeko Plan Orokorrari auzi errekurtsua tartekatzea.
4. Zarata eta Dardaretatik Babesteko udal ordenantzaren hasierako onarpena.
5. Oiartzun Udalerrian bidaiarien hiri garraio zerbitzu publikoaren kudeaketa -Xorrola autobusa- kontratuari atxikitutako ondasunak eta gainerako elementuen itzulketa prozedurari hasiera ematea.
6. Oiartzungo Udala eta Gazte Izanak Elkartearen arteko hitzarmenaren onarpena.
7. Oiartzungo Udala eta Kattin Ttiki Elkartearen arteko hitzarmenaren onarpena.
8. Arragua auzoan euskal kulturgintza eta auzoko jaiak sustatzeko eta udal lokala uzteko Udalaren eta Aldeguna Elkartearen arteko hitzarmena onartzea eta festak antolatzeke dirulaguntza ordaintzea.
9. Ergoien auzoan euskal kulturgintza eta auzoko jaiak sustatzeko eta udal lokala uzteko Udalaren eta Auzokalte Ergoingo Auzo Elkartearen arteko hitzarmena onartzea eta festak antolatzeke dirulaguntza ordaintzea.
10. Oiartzungo Udala eta Ibargain Musika Eskolaren arteko lankidetzak hitzarmenak agindutako 2019-2020 ikasturteko lehen ordainketa egitea.
11. Oiartzungo udalerrian euskara sustatzeko jardueretarako dirulaguntzak arautzeko oinarri bereziak eta deialdiak onartzea.
12. Gurutze, Karrika eta Ergoien auzoetan garraio zerbitzu publikoa emateko Udala eta Oiartzungo taxisten elkartearen arteko itunaren luzapena.
13. Elorrondo kalea 14 helbidean igogailua jarri ondoren, espazio publikoaren behin betiko okupazioaren dagokion tasa zehazteko proposamena.
14. 2019ko 2. Kreditu aldaketaren onarpena.
15. Beste ekitaldietako ordainagiriak baliogabetzea.
16. Beste organoen jardueraren jarraipena.
17. Eskari-galderak.